



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Saila

Laburpena, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2/2025 Foru Dekretua, urtarrilaren 9koa, garapenerako lankidetzaren eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen, 2025ko ekitaldian. BDNS (Identif.): 807872.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/807872>)

Lehenengoa. — Erakunde onuradunak

1. Erakunde onuradun izan daitezke Dekretuaren 2. artikuluko baldintzak betetzen dituzten erakundeen erakunde eta partzuergoak:

- Euskadiko Autonomia Erkidegoko kasuan kasuko erregistroan eratu eta izena emanda egotea, gutxienez deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu baino bi urte lehenagotik.
- Erakundearen estatutuetan jasota edukitzea jarduera nagusien artean garapenerako lankidetzaren arloan egiten duela.
- Irabaziak lortzeko asmorik ez edukitzea.
- Egoitza soziala edo ordezkaritza iraunkorra Bizkaiko Lurralde Historikoan edukitzea. Ordezkaritza iraunkorra edukitzeko, erakundearen egiturarik garrantzitsuenak Bizkaian egon behar dira, eta hori agiriaren bidez frogatu behar da.
- 2024an Bizkaiko Lurralde Historikoan gizarte eraldatzeko gutxienez bi sentsibilizazio- edo hezkuntza-jarduera egin izana. Ez dira sentsibilizazio-ekintzat hartuko komunikabideetan egiten diren esku-hartzeak, ezta GGKEarekin lotura zuzena duten taldeei zuzendutako topaketak edo jarduerak ere.
- Ezin dute izaera bereko dirulaguntza edo laguntzak direla-eta hasi den itzulketa- edo zigor-prozeduraren batean sartuta egon.

2. Erakundeen partzuergoek aurkezturiko proiektuek ere dirulaguntza jaso ahal izango dute. Partzuergoko erakunde guztiek bete eta egiaztatu behar dituzte aurreko idatz-zatietan adierazitako baldintzak.

Bigarrena. — Xedea

II. kapitulua: Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako dirulaguntzak irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat.

Kapitulu honen bidez, laguntzak eman nahi dira, 2025eko ekitaldian, giza garapenerako lankidetzaren ekintzak egiteko, txirotutako herrietan, aldaketa ekonomikoak, sozialak, politikoak, kulturalak, ingurumenekoak, emakume eta gizonen arteko botere harremanetakoak bultzatzeko, irabazi-asmorik gabeko erakundeen bitartez. Erakundeon jarduera nagusietako bat garapenerako lankidetzaren izan behar da; adibidez, GGKEak, gizarte mugimenduak erlijio kongregazioak, fundazioak eta antzekoak izan daitezke.

III. kapitulua: Gizarte eraldatzeko sentsibilizazio eta/edo gizarte eraldatzeko hezkuntza proiektuetarako dirulaguntzak.

Kapitulu honen xedea 2025eko ekitaldian gizarte eraldatzeko sentsibilizazioan edota hezkuntzan diharduten proiektuetarako laguntzak arautzea da, Bizkaiko Lurralde Historikoan.



IV. kapitulua: Herri txirotuetan edota Bizkaian ekintza zehatzak egiteko dirulaguntzak. Kapitulu honen helburua da lankidetzan ohikoak ez diren eragileak nazioarteko elkar-tasunera sartzeko erraztasunak eskaintzeko laguntzak arautzea.

V. kapitulua: Jatorrian laguntza teknikoak kontratatzea, erakunde eskatzaileek lan egin ohi duten tokiko erakunde bazkideen genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketa errazteko.

VI. kapitulua: Ekintza humanitariorako eta larrialdietarako laguntzak.

Kapitulu honen helburua da laguntzak arautzea 2025 urtean ekintza humanitarioko proiektuetarako eta GLBren laguntza-jasotzaileen zerrendako herrialdeetan natur hon-damendien edo gatazka armatuen ondorio diren beharrian larriei aurre egiteko.

Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza horien oinarri arautzaileak hemen daude jasota:

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2/2025 Foru Dekretua, urtarrilaren 9koa, garapenerako lankidetzaren eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena, 2025eko ekitaldian.

Laugarrena. — Zenbatekoa

Kapitulu hauen arabera eman daitezkeen dirulaguntzak 4.750.000,00 izango dira guztira, honela banakatuta:

- a) II. kapitulua. 2025eko ekitaldia: 3.000.000,00 euro.
- b) III. kapitulua. 2025eko ekitaldia: 630.000,00 euro.
- c) IV. kapitulua. 2025eko ekitaldia: 240.000,00 euro.
- d) V. kapitulua. 2025eko ekitaldia: 80.000,00 euro.
- e) VI. kapitulua. 2025eko ekitaldia: 800.000,00 euro.

Bosgarrena. — Eskabideak aurkezteko epea eta era

Eskabideak aurkezteko epea:

II, III, IV, V eta VI kapitulueterako: 2025eko martxoaren 14tik 2025eko apirilaren 14ra arte, 13:30ean.

Bilbon, 2025eko urtarrilaren 9an.—Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua, Maria Teresa Laespada Martínez